

Zuk pentsa, irakurle, gure harriduraz.

Eta, hori ez da txarrena. Pentsa zazu horientzat zer harridura litzaken orain «etarrik» ez dela zin egingo bagenieke. Harriduraren harriduraz harrika egingo liguteke.

Baina gu, zintzotasunean leial: etarrik ez dela! Zeren Euskal Herrian ez bait da ez herririk, ez txerik Eta izena duenik.

*BILBO ZAHARRA.* Eskuetara iritsi zaigu Bilboko Zazpi-kaleetako komertzianteeek argitaratu duten gida liburuxka, parte zahar hortan zernahi erraz eta laster aurkitu ahal izateko egina. Oso praktikoa. Txukun egina gainera, ezkerreko orrialdea marrazkiz eta eskubikoa zerbitzuen helbide eta telefonoz. Gabinorte, S. A. etxeak Imprenta Industrial, S. A.-an inprimatua da. Baina titulua oker jarria du: *Bilbo Zaharra. Casco Viejo.*

Historiari eta leku-izeneri berena zor zaienez, *Casco Viejo*, Zazpi-kaleak dira eta ez «Bilbo-Zaharra». Zeren *Bilbo-zarra*, iturri ziurretik dakigunez, ibaiaren bestaldea da, Muelle de la Merced eta Naxa (Naja) parte hori. Agiri eta mapa zaharrak, eta ez hain zaharrak, begiratzea baizik ez dugu hori jakiteko.

JAURETXE, JAUREGI JATORRAGOAREN KONTRA. Han eta hemen, geroago eta maizago irakurtzen dugu *Jauretze*, *Jauregi*-ren ordez. Elkarren artean desberdinak izatez aparte, itxurarik gabeko bitxikeria iduritzen zaigu.

*Orduen Liturgia* (1977) edo hasi zen «casa del Señor» adiaraziz *Jauretze* erabiltzen, baina euskaldun berriak «palacio» ordez erabiltzen hasi zaizkigu.

Elizbarrutiarteko Liturgi-euskeratzaille Taldeak ere hobe zuten Duvoisin kapitainari jarraitu balio; baina, zoritxarrez, ho-

lako gauzetarako ez gara kontserbadoreak, bestetarako garen bezala, eta horregatik darabilkigu hizkuntza hain aldakor.

Lhandek dakar *Jauretze*, «*maison seigneuriale*» bezala; baina ber-berak, *Jauregi*, «*château*», «*palais*», oso ondo berezirik.

ERITXIRA AMAIÑ EMON DA. Eritzia eritzi, nik ez dakit eibartarri «Manifestaziñua tremendua, banda munizipala kabezan eta pueblua masan» leporatu zigunak nola arraio esango zuen gaztelerazko *a tientas*, berak horrelako gutxi-gora-beherako eritiziko esaldi hori asmatzean. Gurean, «eritxi», *opini3n*, *criterio* bai da (horren faltaz ez da gauzonik). Eibartarrentzat, «itxuka», (Itxuka eta Begitxuka) jolas bat baizik ez zen, Goyak bere obra batean aurkeztu zuen hura; eta «gutxi-gora-behera», hur ematen duena, *grosso modo*; baina «eritxira» beste zerbait da, hau *a tientas*-en kideko edo ordezeko erabiltzen dugu eta ez da gure errua bestek hori ez jakitea.

Hargatik iduritzen zait gure artean haina edo gehiago erabiltzen direla lekukotasunak «eritxira» Euskal Herrietan, lanen doitasun eskasian.

Hori argitu beharra dut ondorean adiaraziko dudanaren ulergarri. Gauzak arin egitea ez baita beti laster egitea. Batez ere buruz egin behar direnak, kontuz arintasaunez kutsatzetik.

Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak udaran argitaratu zuen gida-liburuxka, adiskide batek (emakumezko adiskidea bere zentzurik onenean eta ez Azpeitin erabiltzen duten eraz) eskuratu zidan: *Donostia. San Sebastián 1986. (verano-86). Año XX*. Hor datoz etortzekoak! Gure kultur ahulezia, gida horietan nabari ohi bezala, plater ederrak jakiz, apaingarri beharrez nazkagarri bihurtzen zaizkigunak. Hala ere, aitor dezadan, hutsuneak gora-behera, holako liburuxkak beti direla lagungarri.

Gida-liburuxka hori eman zidan adiskidea galdezka zeto-